


MAMUKI

Testua: Nerea Ariznabarreta
Irudiak: Maite Rosende

XVIII. ETXEPARE SARIA (2024)

ISBN 978-84-9172-393-6. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 21 x 25 cm. 44 or. 15 €



GAUR MAMUKI EZ DA ONGI ESNATU.
MUKIZ BETERIK, EZIN INOR IZUTU...
ETA, SUSTORIK GABE, EZIN GAU BELTZA OSPATU!

“NOLA SENDATU?”, DABIL PENTSATU ETA PENTSATU.
SUSTOAK HAINBESTE MAITE DITU...

Beldurrari buruzko album umoretsua dugu Mamuki. Gau Beltza da, eta mamuek sustoak eman behar dituzte, ingurumarian ikara eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaixorik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiatuko dira hura osatzen edo sendatzen: banpiroa, zombia... edo geureago ditugun Zakuzahar edo Otsoko, baina alfer-alferrik. Gaixoa! Zer egingo du Mamukik Gau Beltza ospatu ezinik...? Etxeko agertoki minimalistan txakur jolastia ere saiatuko da Mamuki sendatzen, baina orduak joan, orduak etorri, munstroak joan, munstroak etorri, ez da konponbiderik inondik ere agertuko. Edo bai...

Apaindura gutxiko etxean osagai bakoitzak sinbolismo handia erakusten du, erlojuak eta ilargiak batik bat, txakurrekin batera betiere. Baina istorio-misterioa arras aldatuko da, erlojuak argi adierazi bezala, bi orduren buruan munstroek eta piztiak elkar hartzen dutenean...

Narrazioa paralelismoetan eta hitz jokoetan eraikia dago, erritmoa eta errima erabiltzen ditu eta hurrei oso gertukoa egiten zaie; barrea eraginen du ustez beldurra nagusi den kontakizunean. Testua, finean, beldurrari buruzko gogoeta jostagarria bilakatuko da, gertukoa eta goxoa.

Bitxia da, baina erritmoa eta errima horiexek ere dira ilustrazioen ezaugarriak, benetan dira samurrak eta maitagarriak, dibertigarriak eta ganberroak. Horregatik da bikaina *Mamuki* albuma, testuaren eta ilustrazioaren arteko uztarketa aparta delako, biek ere soilak eta sotilak diruditen arren. Irakurlearengan irribarrea eta konplizitatea pizten dute, eta orrialdeetan atzera egiteko gogoia, lehen begiratuan ikusi ez ditugun xehetasunak bilatzeko, ludikotasuna eta adiskidetasuna aldarrikatzen.

- **Gaia:** Gau Beltzara hurbiltzeko modu atsegin eta umoretsua.
- **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera.
- **Nabarmenezkoak:** kontakizun errimatua, umorea, munstroen desfilea, beste beldurrezko ipuinen erreferentziak, adiskidetasuna gaixotasunean, irudi minimalistak.

Nerea Ariznabarreta Izkue (1981, Eibar).


Aitak, ipuinak, elezaharrak eta haurtzaroko bizipenak kontatu eta asmatzen zizkion. Amarengandik abesteko zaletasuna jaso zuen. Aurkezle, gidoigile eta sormen-irakasle lanetan aritu izan da. 2003tik narratzailea eta antzerkigilea da.

Maite Rosende Gutierrez (1991, Donostia)

Batxilerr Artistikoa burutu ondoren, Bartzelonara joan zen pintura muraleko goi-mailako gradu bat egitera.

Hainbat diziplina artistikotan trebatu da, baita diseinu grafikoan, argazkigintzan eta bideo-edizioan ere.

Gaur egun freelance gisa egiten du lan ikus-entzunezko piezen, kartelen eta ilustrazioen enkarguak eginez, bere lan pertsonalak albo batera utzi gabe.



<http://www.etxeparesaria.eus/>



Tel.: 948 326 535 / soltxate@pamiela.com www.pamiela.com